



2016-2020

UABko hizkuntza-plana

Pla de llengües de la UAB

Plan de llengües de la UAB

Programa de llengües da UAB

UAB Plan for Languages

Plan de llengües dera UAB

Plan d'action pour les langues



1. Hizkuntza-planaren helburua

2016-2020 aldirako, UABko hizkuntza-politikarako esparru estrategikoa prestatzea.

2. Aplikazio-eremua

Aplikazio-eremua Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa da. Gainera, Unibertsitateak Planaren zenbait irizpide UABk gehiengo partaidetza duen erakundeetan subsidiarioki aplikatzea gomendatzen du, bai eta plan hori UABk aintzatesten dituen erakundeentzako orientazio gisa balio izatea ere.

3. Iraupena

Planak bost urte irautea proposatzen da, 2016ko urtarriletik 2020ko abendura.

4. Planaren tipologia

Hizkuntza-plana esparru orokor bezala, ibilbide-orri bezala, ulertzen da, eta eremu bakoitzak plan espezifikoetan zehazteko mekanismoak ezarri behar ditu, bere espezifikotasunaren arabera.

5. Jarraipenaren arduraduna

Gobernu Kontseiluaren ordezkaria den Hizkuntza Politikako Batzordeak Hizkuntza Planaren jarraipena egiten du.

Hizkuntza Zerbitzua da Planari laguntza teknikoa emateaz arduratzen den erakundea.

Zentro bakoitzeko Hizkuntza Politikako hizketakidea da bertako hizkuntza-gaietako zalantzak edo galderak bideratzeko erreferentziatzeko pertsona.



6. Beharrezko baliabideak

Hizkuntza Planak garatu beharreko jardueren urteko aurrekontu-aurreikuspena hartzen du barne. Urtero, lehentasuna ematen zaie jarduera horiei, horrela, guztiak gauzatzeko nahikoa aurrekonturik izan ezean, garrantzitsuenak gauzatu ahal izateko.

7. Egitura eta edukiak

Plana hurrengo elementuen bidez artikulatzen da.

7.1. Esparru orokorra

UABko Hizkuntza-plana jarraian deskribatutako esparru orokorretik abiatzen da.

Katalana da Kataluniako eta bertako hezkuntza-maila guztietako berezko hizkuntza, bai eta ofiziala ere (gaztelarekin batera). Ondorioz, UABko berezko hizkuntza da. Berezko hizkuntza izateak Unibertsitateko bikaintasun- eta talentuaren atzemate- zein fidelizazio-helburuak gauzatzeko funtsezko elementua bihurtzen du katalana; izan ere, hizkuntza-gaitasunak ezinbestekoak dira garapen pertsonalerako eta profesionalerako. Beste aldetik, Kataluniako unibertsitate bezala, UAB hizkuntzaren erabilera eta katalanez egindako ekoizpen zientifikoaren hedapena zein hobekuntza ziurtatzeaz arduratzen da.

Gaztelera da UABko beste hizkuntza ofiziala eta, gainera, hori erreferentziazko zentroa da espainiar filologian. Ingelesarekin batera, funtsezko hizkuntza da talentua atzemateko eta fidelizatzeko, bai eta Unibertsitatearen nazioarteratze- zein bikaintasun-helburuak lortzeko ere.

Ingelesa bihurtu da nazioarteko komunitate akademikoaren hizkuntza frankoa, eta gero eta gehiago erabiltzen da lan-hizkuntza eraginkor bezala, unibertsitateko jardueran eta ingurune profesionalean. Horregatik, aktibo argia da gure ikasleen garapen akademikorako. Beraz, beharrezkotzat jotzen da ingelesaren estatusa formalizatzea, hizkuntza franko bezala.



Ingelesak nazioarteko komunitate akademikoaren hizkuntza franko bezala Unibertsitatearen nazioarteratze-estrategian duen rola ukazina bada ere, frantsesak ere rol garrantzitsua du, arrazoi geoestrategikoak direla eta, gertutasunaren eta tradizioaren ondorioz. Gainera, frantsesa, alemana eta italiara, besteak beste, estrategikoak dira erreferentziazko hizkuntza bezala, ezagutza-eremu eta ingurune profesional jakin batzuetan. Beste aldetik, lanbide jakin batzuetan, garrantzitsua da gaitasun eleaniztuna.

Egun, Unibertsitatearen komunikazioan eta sustapenean, garrantzitsuak dira ere bai Asiako ekialdeko hizkuntzak (txinera, japoniera eta koreera, nagusiki), UABk eremu geografiko horren alde egindako apustu estrategikoaren ondorioz.

Azkenik, Unibertsitatearen aktibo garrantzitsu bat bere hizkuntza-kapitala da: hasieratik, unibertsitatearen kontzeptua eleaniztasunari lotuta dago, ezagutza sortzen eta kontsumitzen duten pertsonen arteko aberaste- eta gerturatze-faktore bezala. Elkarrekin bizi diren hizkuntzek eta kulturek unibertsitate-komunitatea aberasten dute eta, bestetik, hizkuntzekin erlazionatutako ikasketa-multzoa, zentroak, institutuak, ikerkuntza-taldeak eta zerbitzuak ikerkuntza-, ezagutzaren transferentzia- eta berrikuntza-iturria dira eremu horretan.

7.2. Xedea, ikuspegia eta baloreak

7.2.1. Xedea

Hizkuntza-plana UABren xedea garatzeko hizkuntza-politikaren arloko helburuak eta beharrezko ekintzak ezartzen dituen tresna da.



7.2.2. Ikuspegia

Hizkuntza-planak UAB honako hauek bihurtzea erraztu behar du:

- Hizkuntza- eta komunikazio-kalitateko eredu eraginkorra, irakaskuntzan, ikerkuntzan eta komunikazio instituzionaletan.
- Ikerkuntzaren, ezagutzaren transferentziaren eta berrikuntzaren motorra hizkuntza-arloan.
- Tokiko eta nazioarteko erreferentea eleaniztasunaren gobernu-ereduaren eraikuntzan eta aplikazioan, Unibertsitatean.
- Hizkuntza-iraunkortasunarekiko konpromisoaren aitortutako kasua.

7.2.3. Baloreak

Hizkuntza-plana honako baloreetan oinarritzen da:

- Katalanaren sustapena, berezko hizkuntza ofizial bezala, irakaskuntzan, ikerkuntzan eta ezagutzaren transferentzian.
- Gazteleraren aitorpena, UAB nazioarteratzerako hizkuntza garrantzitsu bezala.
- Ingelesaren sustapena, nazioarteko komunitate akademikoaren hizkuntza franko bezala, irakaskuntzan, ikerkuntzan, dokumentazio administratiboan eta komunikazio instituzionaletan.
- Unibertsitatearen eleaniztasunaren eta unibertsitate-komunitatearen eleaniztasunaren zein kulturarteko gaitasunaren aintzatespena, UAB nazioarteratzeko aktibo estrategiko bezala.
- Hizkuntzen estatusaren ondoriozko hizkuntza-eskubideen eta eginbeharren gardentasuna eta eraginkortasuna: katalanarena berezko hizkuntza bezala, katalanarena eta gaztelerarena hizkuntza ofizial bezala, ingelesarena nazioarteko komunitate akademikoaren hizkuntza franko bezala, bai eta beste hizkuntza batzuen ere, eremu espezifikoetan.



7.3. Helburu estrategikoak

UABko Hizkuntza-planaren helburu estrategikoak bat datoz Unibertsitateak ezarritako helburu estrategikoekin eta, bereziki, honako hauekin: kalitatezko irakaskuntza kontsolidatzea, berezko irakaskuntzaren tokiko zein nazioarteko inpaktua zabaltzea eta ikerkuntzaren kalitatea bultzatzea.

Era berean, kontuan hartzen dira Kataluniako Generalitateak bertako unibertsitate publikoen helburuetarako finantzaketa aldagarrietarako ezarritako hizkuntza-gaitasunen hobekuntza-helburuak.

Hizkuntza-planaren helburu estrategikoak honako hauek dira:

- Ikasleen hizkuntza-gaitasuna handitzea.
- Unibertsitate-komunitatearen kulturarteko elkarrekintza-gaitasuna hobetzea.
 - Tokiko zein nazioarteko ikasleen kopurua handitzen laguntzea, Unibertsitatearen hizkuntza-baliabideak zabaldua, horren komunitateari dagokionez.
 - Ingelesez, katalanez eta gazteleraz zein eremu jakin batzuetan esanguratsuak izan daitezkeen beste hizkuntza batzuetan argitaratutako ikerkuntza-bolumena handitzen laguntzea.
 - Unibertsitatearen jardueren inpaktua handitzen laguntzea, hori zabaltzen duten dokumentuen hizkuntza-kalitatea ziurtatuz.

7.4. Jarduera-ardatzak

Hizkuntza-plana hiru jarduera-ardatzetan egituratzen da:

- Erakunde- eta kudeaketa-ardatza.
- Irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren ardatza.
- Mugikortasunaren eta harreraren ardatza.



7.5. Jarduerak

Jardueren edukiak helburu estrategikoen arabera zehazten dira (ikus 7.3 atala). Jarduera horiek Planaren indarraldian lortu ahal izan behar dira, eta lau mota ezberdinekoak izan daitezke:

- laguntzakoak,
- inplementaziokoak,
- diagnostikokoak,
- erregulaziokoak.

Urtero, urteko jarduera-plan bat ezartzen da, une bakoitzeko beharrak zein aurrekontu-baliabideak kontuan izateko.

Hizkuntza-plan berriarekin hasitako etaparako bereziki eraginkortzat jotzen dira laguntza-neurriak eta, orokorrean, diagnostikokoak eta erregulazioak orain dela urte batzuk bezain beharrezkoak ez direla pentsatzen da; nolana ere, kasu jakin batzuetan garrantzitsuak izan daitezke.